

GABIRIAREN ETYMOLOGIAZ

1977 - VIII - 25

Xabier Kintana

Duela zenbait hilabete Ordiziatik, bertan hitzaldi bat egin nezan, deitu egin ninduten. Handik Bilboratzean, hiriak bere sarrera daukan izenaz hasi nintzen pentsatzen, ondorioz, hemen dakartzadan konklusioetara helduz.

Dakigunez, Gipuzkoako hiri horren oraingo izen ofiziala *Villafranca de Ordizia* da, bertakoek eta ingurukoek beti *Ordizia*, soil-soilki, deitua izan arren. Neronen kezka, ordea, ez zen hiri horren gaurko euskal izena nola den jakitea, aurrekoa, hots, erdarazko *Villafranca* hori, euskaraz inoiz izan bazen behintzat, nolakoa izan zitekeen jakitea baizik.

Arazo honek, bestalde, kuriositateaz gainera, ba du aparteko garrantzia. Dakikegunez, Erdi Haroaren bukaeran, XIII eta XIV mendeetan bereziki, Euskal Herrian, Europa osoko prozesu batetan murgildurik, erregeen babespeko hiri asko fundatu ziren, gaztelaniaz *Villafranca*, *Villarreal*, *Villagrana*, *Monreal*, *Salvatierra* eta *Segura* izenez ezagutuak (1).

Euskal Herriko orain arteko hizkuntza ofizial ia bakarrak erdarak izan direlarik, dokumentuetan ez dira behin ere izenok euskaraz azaltzen eta horregatik ez dakigu herriaren ahoan noizbait usariorik ukan duten ala ez. Erregeen babespean egindako hiri bereziok euskaraz generikoki izendatzeko orduan, beraz, orduko euskal izena ez dakigularik, erdaraz aipatu beharra daukagu, orain asmaturiko eta ordukoa ez zen izen anakhroniko batez adierazi nahi ez baditugu behintzat (2).

(1) Ikus Julio CARO BAROJA, *Los Vascos*³, Ed. Istmo, Madrid, 1973, 91 hor.

(2) Salhatzekoak dira, arrazoi honexegatik, *hiribildu* moduko asmakeria modernoak.

Hirien, eta, eskuharki, toponymi izen askok, maiz hizkuntza ezberdinetan beren kide hurbilak dauzkate: *Neapolis / Villanova / Cittanova / Villeneuve / Villanueva / Vilanova / Neustadt / Novgorod / Hiriberri; Pentapolis / Cincovillas / Bosturi / Busturi; Villabona / Uriona; Bonloc / Lekuona / Lekuine; Neuchâtel / Neufchateau / Newcastle / Castelnuovo / Gazteluberri, Jauregiberri... etab.*

Gu orain gatzekion izenak berak ere, *Villafranca*-k halegia, ba ditu Europako beste hizkuntzetan bere kideak: *Villefranche, Friburg, Freetown...* Izenok, funtsean, zera adierazten zuten, beraik zeramatzaten hiriek, inguruko herri lauek ez bezala, zerga, petxa edo erret paguetan halako pribilegio batzu zeuzkatela. Erdarazko *Villafranca*, hortaz, "*Villa franca o libre (exenta) de pechas*" gisa ulertu behar dukegu.

Euskaraz hori berberori nola esan zitekeen pentsatzen arituz (3), *petxa* (edo *zerga*) *gabeko hiria* zatekeela etorri zitzaidan burura, beste hizkuntzetan bezala laburtuz, hots, *petxa* edo *zerga* hitza kenduz, *gabeko hiria* edo *gabe* (*dagoen*) *hiria* irtenik. Une hartan izen bat pasatu zen ene burutik: *Gabiria, Villafranca de Ordizia*-ren ondoan egonik, agian neronek bilatu nahi nuenaz zer ikusia zeukakeena.

Formaz, *Gabiria gabe* + *hiri*-tik sortua datekeela begien bistan da. Beste etymologia posible bat *gabi* "mailu" + *hiri* litzateke, baina geographiaz ba dirudi hor ez dela inoiz burdin olarik izan, hypothesis hori ezabatzen duena berau (4).

Beste etymologia posible bat, A. Irigoyenek proposatua, zera litzateke: *Gabi* "izen propioa" + *hiri* (cf. *Enekuri, Maruri, Basahuri, Otsanduri, Erramelluri...*): hori baina, Gipuzkoan kasu bakarra litzateke, ez bailuke —eta *-hiri*-rekin are gutiago— beste kiderik.

Alde batera uzten ditugu, zentzurik ikusten ez diegulako, *gau* + *hiri*, edo *-iri* "aurre"-rekiko beste hypothesisak (cf. *Zubiri, goiztiri*).

Gabiria (<**gabe* + *hiria*) ez litzateke, bestalde, *gabe* + sus-

(3) Alde batera uzten dugu, noski, iparraldeko *Milafranga*, berau erromantzetikoa izanki.

(4) Ikus Pablo de GOROSABEL, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa o descripción de la provincia y de sus habitantes*, Ed. López, Tolosa, 1899-1901, 195-197. horr. "No tiene fábrica de ninguna clase; pero sí algunos molinos harineros de poca consideración, a causa de la escasez de agua de su regata".